



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA							Kodea: 014777	
ARLOA / IRAKASGAIA	GORPUTZ HEZKUNTZA							DATA	2018-2019
MAILA			1.ZIKLOA						
1	ARLOAREN GUTXIENEN HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA								
<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikusmen-, entzumen- eta ukimen-estimuluen aurrean gorputzarekin erreakzionatzea, eta estimulu horien ezaugarrietara egokitzen diren mugimen-erantzunak ematea. 2. Hainbat modutan mugitzea eta salto egitea, bermapuntuak, hedadurak eta maiztasunak aldatuz; mugimendu horiek, gainera, era koordinatuan egingo dira eta espazioan orientazio ona izan beharko da. 3. Jaurtiketak eta harrerak egitea nahiz objektuak maneiatzera behartzen duten beste trebetasun batzuk lantzea; horretarako, gorputz-zatiak koordinatu eta gorputza modu egokian kokatuko da. 4. Hainbat jarrera hartuz, gorputza orekatzea, eta, zeregin horretan, tentsioa, erlaxazioa eta arnasketa kontrolatzea. 5. Jolasetan parte hartzea eta gozatzea, eta, horrez gainera, bere jarduerak egokitzea, bai alderdi motorrei dagokienez, bai ikaskideekin harremanak izateari dagokienez. 6. Gorputzaren bidez edo tresnekin erritmo-egitura bat erreproduzitzea. 7. Gorputzaren eta mugimenduaren bitartez, pertsonaiak eta egoerak sinbolizatzea, eta, zeregin horretan, naturaltasunez eta erraztasunez jardutea. 8. Gorputza zaintzeari buruzko arauak betetzeko interesa agertzea; zehazki, jarduera fisikoetan higieena zaintzeari eta arriskuen kontzientzia hartzeari dagokienez. 									



2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA				
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
	1. HAUTEMATE- ETA MUGIMEN- GAITASUNAK. 2. MUGIMEN TREBETASUNAK. 3. GORPUTZ ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA. 4. JARDUERA FISIKOA ETA OSASUNA 5. JOLASAK		1. HAUTEMATE- ETA MUGIMENGAITASUNAK. 2. MUGIMEN- TREBETASUNAK 3. GORPUTZ ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA 4. JARDUERA FISIKOA ETA OSASUNA 5. JOLASAK		1. HAUTEMATE- ETA MUGIMEN GAITASUNAK. 2. MUGIMEN TREBETASUNAK 3. GORPUTZ ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA 4. JARDUERA FISIKOA ETA OSASUNA 5. JOLASAK

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

- EB01. Ikusmen- eta entzumen sekuentzia bat errepikatzea, sekuentzia hori desagertu ondoren.
- EB02. Oinarrizko trebetasunak eta trebeziak erabiltzera behartzen duten jolasak praktikatzea, euskal herri-jolasak barne.
- EB03. Gorputz-mugimenduak espazio- eta denbora-baldintzen arabera egokitzea, hau da: iraupena, erritmoa, mugimendu-ordena, norabideak, orientazioak...
- EB04. Espazio-baldintzen, mugimendu motaren edota orientazio-norabideen arabera jaurtiketak egokitzea.
- EB05. Pertsona bakoitzaren mugak errespetatzea eta hartzen dituen gorputz-jarrerak argudiatzea.
- EB06. Jaurtizko edo harrera egiteko objektuak erabiltzera behartzen duten jolasak egitea, euskal herri-jolasak barne.
- EB07. Egindako jardueretan, material birziklatuak erabiltzea.
- EB08. Arnasketa kontrolatzea.
- EB09. Gorputz-ataletako muskulu-tonua kontrolatzea, oreka lortzeko.
- EB10. Oinarrizko trebetasunak eta trebeziak (lekualdaketak, jauziak, birak, jaurtiketak eta hartzeak) erabiltzera behartzen duten euskal kulturarekin lotutako jolasak modu egokian praktikatzea, bai eta beste kulturekin lotutakoak ere.
- EB11. Bere ahalmenen garapen maila errespetatzea.
- EB12. Ikasgelan egindako jarduera fisikoetan parte-hartze aktiboa izatea.
- EB13. Jolastean bere ikaskideak errespetatzea eta ez baztertea.
- EB14. Jolasen funtsezko balioak ezagutzea.
- EB15. Joko-arauak errespetatzea, eta, beraz, irabazten edo galtzen onartzea.
- EB16. Euskal kulturako eta beste Kultura batzuetako dantza errazak egitea.
- EB17. Instrumentuekin eta ikaskideek egindako mugimendu-sekuentziekin erritmoak errepikatzea.
- EB18. Sentitzen duena hizkuntzaren eta/edo bere mugimenduaren bitartez adieraztea.
- EB19. Gorputz-adierazpeneko oinarrizko teknikak aplikatuz pertsonaiak antzeztea.
- EB20. Gorputz-adierazpeneko jardueretan interesa, naturaltasuna eta sormena agertzea.
- EB21. Jarduera fisikoa egin aurreko elikadurak zer garrantzi duen jakitea.
- EB22. Jarduera fisikoa egiteko arropa eta oinetako egokiak erabiltzea.
- EB23. Zenbait jarduera fisikorekin lotuta gerta daitezkeen banakako eta taldekako arriskuak ezagutzea.
- EB24. Jarduera fisikoa egitean osasun- eta higiene-ohiturak zaintzea.
- EB25. Ohitura osasungarriak eta osasungarriak ez direnak bereiztea

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluatzerako orduan unitate didaktiko bakoitzean berezkoak eta orokorrak diren ebaluazio irizpideak aztertuko ditugu. Irakaslearen behaketa koadernoan erabiliko dugu.

BEREZKOAK %60: unitate bakoitzean lantzen diren eduki espezifikokoak.

OROKORRAK %40: unitate guztietan lantzen diren edukiak (jarrera, parte hartzea, arauak errespetatzea, osasun ohiturak,...)

Ebaluazioa eta eguneroko lanaren behaketarako irakaslearen koadernoan erabiliko da